3. PINTXO TXAPELKETA ETA UDABERRIKO MERKATUA

LAURAK BAT EGUNA

EGITARAUA

ekainaren 6an
- 12:30 -14:00 >> trikitiak
- 19:30 - 21:00 >> trikitiak
- egun osoan zehar pintxo txapelketa

ekainaren 7an
- 12:30 -14:00 >> trikitiak
- 19:30 - 21:00 >> trikitiak
- egun osoan zehar pintxo txapelketa

ekainaren 8an PASAI ANTXON
MERKATARITZAREN AZOKA ERAKUSKETA
- 4:00 >> txekorra erretzen hasiko dira, Pasai Donibaneko Juandanburu harategiaren eskutik
- 9:00 >> diana
- 9:30 >> suziriak
- 10:00 >> merkatal gunearen inaugurazio ofiziala Gure Zumardian. Azokan, artisau Pasaitarren erakusketa
- 11:00 >> dantza taldeen kalejira eta saioa
  - Alkartasuna (Pasai Antxo)
  - Lamiak(Pasai San Pedro)
- 12:00 >> garaikurrak emango zaizkie Pintxo Txapelketako irabazleei
- 12:30 >> txekor-jana
- 12:30 >> kalejira musikala
- 13:00 >> Oiartzun eta Pasaiako erraldoien kalejira eta dantza
- 16:30 >> bertsolariak eta txalaparta
  - Arkaitz Oiarzabal
  - Xamoa
  - Gorka Etxeberria
  - Haritz Casabal
- 17:00-19:00 >> txaranga bat ibiliko da Antxoko kaleetatik barrena
- 19:00 >> opari-sorta ederren zozketa
- 20:00 >> 3. LAURAK BAT EGUNAren amaiera
- egun osoan >> GAZTELU PUZGARRIAK doan gaztetxoentzat eta BISITA GIDATUAK badian barrena, motordun txalupan

LAURAK BAT

Pasaiako Merkatarien Elkartea

branka

Iker Goenaga, atzoko hauspoen harian

2003ko maiatza. Branka, Pasaiako herri-aldizkaria **38. zenb.**

oso urruti ikusten duzula itsas bidaia bat egiteko ametsa?

R.P.S. Nº 164/99 L.L.G.

orain oso gertu ikusiko duzu

MULTIOPTICAS ERRENTERIA

Esmalteria Plaza 7 • Tel. 943 51 78 11

MultiOpticas-en
Lente Progresiboak
120€urotik aurrera
...eta zozketatzen ditugun 400 itsas bidaletatik bi eraman itzazu

Zure lente progresiboak MultiOpticas-en eroleamen, bi lagunendako Mediterraneoan zehar/reko itsas bidaia irabaz dezakezu.

Promozioa 03/05/01-03/06/15. Ez motagarria beste eskaintza batzuetara. Notario aurrean egiteko oharrak.

branka

Pasaiako herri aldizkaria

2003KO MAIATZA/ 38 ZENB.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 657 796 073
Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, Enara Mateo, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio, Lander Garro.

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behekaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txarteld

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaiako herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:

Pasaiako Udala

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

laburrean

>4. HAUTESKUNDEAK

>5. OROKORREAN

>4-13. BARRUTIZ-BARRUTI

>14. ERREPORTAJEA
Bi pasaitar Palestinan

>18. KALE-INKESTA
Zure ustez, zein postutan sailkatuko da aurtengo ligan Reala?

>20. ELKARRIZKETA
Iker Goenaga

>24-25. MENDIZALEEN TXOKOA

>26. KRITIKAK

>27. IRAGANARI BEGIRADA

kutxa
gizarte ekintza

Maiatzaren 25eko udal-hauteskundeek segida izango dute datozen astetan

Berdintasuna izan da nagusi emaitzetan, eta gobernu batzordea osatzeko alderdi arteko akordio bat eman beharko da. Boz gehien jaso duen alderdia, epaitegi gorenak legez-kanpo utzitako Badia herri-plataforma. Izaskun Gomez buru duen Alderdi Sozialista izan da, legezkoak izan diren bozen artean, boz gehien lortu duena, eta beraz beraiei dagokie negoziazioen buru izatea datorren ekainaren 14an egingo den alkatearen eta gobernu batzordearen izendapen ekitaldiari begira. Hala ere, EAJ, EA, eta EB alderdiek hirukoa egiteko aukera ez da baztertu behar, Jaurlaritzan irekitako akordioa Pasaiara ere zabalduz. Berri gehiagoren zain, hauexek izan dira behin-behineko emaitzak barrutiz-barruti.

1999 URTEKO DATUAK

barrutia	errolda	EH	PSE	EAJ-EA	PP	IU
Donibane	2381	702	120	461	93	19
San Pedro	2770	574	325	420	187	61
Trintxerpe	5585	781	766	428	456	334
Antxo	4066	931	484	675	243	87

2003 URTEKO DATUAK

barrutia	errolda	BADIA	PSE	EAJ	EA	PP	IU
donibane	2180	502	94	255	388	102	35
san pedro	2602	336	263	281	221	175	145
trintxerpe	5349	450	750	450	263	519	354
antxo	3920	602	492	538	380	232	188

Kontuan hartzen badugu Badia herri-plataformak Udalean ordezkarutzarik ezin duela izan, zinegotzien banaketa hauxe izango litzateke: PSE-> 5 zinegotzi, EAJ-> 4 zinegotzi, EA-> 3 zinegotzi, PP-> 3 zinegotzi, EB-> 2 zinegotzi.

Oarsoaldea, Eskualderako Garapen Agentziaren hamar urteko uzta

Pasa den maiatzaren 8an, Errenteria Hiria Kulturgunean, Oarsoaldeako Garapen Agentzian lanean diharduten langileak zein egungo ordezkari politikoak prentsa aurrera azaldu ziren, hamar urtetako memoria aurkezteko deitutako ekitaldira. Juan Carlos Alduntzinek, egungo lehendakaria, Xabier Iragorrik, Aitor Sarasolak, Juna Carlos Merinok eta Fernando Nebresdak hitz egin zuten ekitaldian.

Denek orain arteko ibilbideaz hausnarketa egin uzten, eta, gogora ekarri, garapen agentzia 1.993 urtean sortu zela, Oarsoaldea krisialdi ekonomikoaren ondorioetan murgilduta bizi zen garai batean.

Ondoren, hastapeneko egun haietatik aurrera agentzian bideratu den elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuten udaletako ordezkariek, eta egungo koiuntura politikoari erreferentzia eginez, martxan dauden egitasmoei ekiteko pertsona eta ideia guztien parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuten.

Hamargarren urteurrenaren ospakizunei hasiera eman zien ekitaldi honetan, Oarsoaldea osatzen duten guztiek orain gutxi arte lankidea izan duten Borja Sanzi omenaldia eskaini zioten.

Ekitaldian, memoriaz gain, hamar urteetako ibilbidea laburbiltzen duen CDa banatu zen, eta bideo emaldi bat ere eskaini zen. X. urteurrena ospatzeko gainontzeko ekitaldiak urritik aurrera izango dira.

Oarsoaldeak bultzatutako hamaika egitasmo martxan

Oarsoaldeak martxan dituen egitasmo ugariren berri eman du azken hilean. Maiatzaren 5ean, lanmundua euskalduntzera bideratutako OLA planaren barruko konpromisoen sinadura publikoa egin zen. Bertan ziren beraien jarduna euskalduntzeko konpromisoa hartu duten 15 enpresetako ordezkariak, eta haien guztien izenean Azti enpresako Xabier Goirigolzarrik hartu zuen hitza. Azti eta Montajes y Reparaciones Pasai dira OLA plana martxan jartzea adostu duten herriko bi enpresek.

Maitzaren 6an, Sprilurrek eta Oarsoaldeak Zinealdea poligonoa bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten. Poligono hau Lintzirinen kokatuko da eta bertan ikus-entzunezkoen ekoizpenerako beharrezkoak diren zerbitzu enpresak kokatuko dira. Zinealdea, EAEn sektore honetan espezializatutako lehendabiziko poligonoa litzateke. Poligono honetan, besteak beste, 2 platoekin hornitutako eraikin nagusi bat egongo da. Plato batean telebistarako ekoizpenak landuko dira eta bestean zine produkzioak. Zerbitzu komunetarako hainbat espazio ere eraikiko dira: produktoreei alokatzeko gelak, biltegia edo eta dekoratuen zerbitzua. Bertan kokatuko da ere ikus-entzunezkoen formazioan espezializatutako zentroa. Arduradunek iragarri zutenez, poligonoa bi urteko epean martxan egotea aurreikusten da. Oraindik enpresekin akordiorik ez dagoen arren, asko omen dira beraien instalakuntzak bertan kokatzeko eskaera luzatu dutenak.

Ontziolan eraikitako azkeneko ontziaren botadura, Enpresen Ideia Lehiaketa eta Victor Hugoren jantzien erakusketa dira, besteak beste, Oarsoaldeak azken hilean aurkeztu dituen beste jarduerak.

donibane

"Gaueko ixiltasunak aintzinako txokoak paperean hobe islatzen laguntzen dit"

Itsasoa eta marrazketa Bibiano Puyren (Bibi izengoitiaz ezagunagoa dena) euskarri nagusiak dira. Lehenengoa, urtetan izandako ogibidea du, bigarrena, berriz, txikitatik atsegin duen zaletasuna. Arrantzaren lanbidean urteak eman dituelako ezaguna da Bibi, baina herriko lagun ugarik ez dute jakingo artista xume baten dohaiakin jaiotako gizona dela; nahiz eta berak artistatzat bere burua ez jo.

Hasieran senitartekoak marrazten eta, apurka apurka, bere inguruneko paisaiak eta txokoak paperan islatzeari ekin zion. Hamalu urte zituela, ordea, afizio alde batera utzi eta arrantzale izateari heldu zion.

37 urte marrazketa tresnak ikutu gabe egon ostean , eta jubilatu baino urte bat lehenago, gaztetako zaletasunari ekin zion berriro ere. Azken lau urtetan, ordea, ugari dira eginiko marrazkiak. Herria eta itsasoa uztartuz, bere urtetako aintzineko Donibaneko txoko esanguratsuenak gogoratu nahi ditu artistak; baita lortu ere. " Ordu txiki anitz ematen ditut, logelako isiltasunean, marrazkien zirriborro, herriko txokoen oroitzapen eta, halaber, hauek paperean islatzen" dio Bibik.

Tinta txinatar eta itzalak azpimarkatzeko ikatz-ziria dira erabiltzen dituen margo bakarrak. "Xumeak, baina paperean indar handikoak" azpimarratzen du. Honen lekuko Bibik irabazi dituen lehiaketak. Besteak beste, 1999 eta 1999. urteetako Donibaneko Santiago jaien egitarauen azala aukeratzeko lehiaketaren sariak aipa daitezke. Honen ostean, 2000. urteko jai egitarauaren azala hornitzeko Udaletxeak zuzenean beste marrazkia egitea eskatu zion, baita egin ere.

Lehiaketak irabazteaz gain, zenbait erakusketa ere antolatu ditu. Une honetan Donostiako Kutxako Erakusketa Aretoan artista honen zenbait lan daude ikusgai.

Zaletasun honekin jarraitu eta teknika berriak ikastea du helburu. Marrazketa ikastarotara joaten hasiko da aurki, eta "marrazketaren trikimailu guztiak menderatu ahala, nire neurrian, erakusketak antolatu eta lehiaketetara aurkezteko xedea dut".

Branka aldizkarikoek zelatasun honekin bere hortan jarraitzea eta orain arte egindako lanarengatik zorionak eman nahi dizkiogu orain arte itzalean lan egin duen artista berri honi.

Luisma Laboa

98.5 F.M
RADIO DONOSTI IRRATIA
betiko musika
98.5 F.M
RADIO DONOSTI IRRATIA

Beste Batel Handi bat uretan

Maiatzaren 15ean itsasgorarekin Ontziolak bertan egindako azkeneko txalupa uretaratu zuen, Basanoaga izeneko batel handia. XIX. mendeko batel hau, 7 metro luze eta 1,60 metro zabal dituena, Mutiozabal planotako bilduman oinarritzen da eta arraunean, edo belaz mugi daiteke.

Aipatu estilo zaharrean oinarritutako triangeluaren estetika ere berreskuratu nahi izan da.

Itsas Mendi KKEaren Musika Ihardunaldiak

Itsas Mendi KKEk urtero antolatzen duen Musika Ihardunaldiak XIII urteurrena beteko du hurrengo egitarauarekin:

Ekainean:

6an Bonantzan, 8,15, ostirala, HIRUSTA ABESBATZA

7an bonantzan, 8,30, larunbata, SANTA ZEZILIA ABESBATZA

8an Bonantzan, 6,30, Igandea, ERESARGI ABESBATZA

13an, Bonantzan, 8,15, Ostirala, HODEITRUK ABESBATZA ETA BERGARAKO ORFEOI GAZTEA

14an, Parrokian, 8,30, Larunbata, ANDRA MARI ABESBATZA

15ean Plazan, 12,45, Igandea, BANDA KONSTANTZIA.

Txistularien eguna Pasai-Donibanen

Igaro den maiatzaren 15ean , Zestoa, Azpeitia, Donostia, Errenteria, Lezo, Oiartzun, Hernani, Pasaia eta Billabonako txistulariak gure herrian, Pasai-

Donibanen, elkartu ziren beren eguna ospatzeko asmoz. Horretarako arratsaldeko 8etan, 45 txistulari inguru bildu ziren eta gure herriko kaleetan barrena musika joz ibili ziren.

Ohitura hau 1995.urtean jaio zen, txistulari lagun talde batek beraiek egun bat eduki behar zutela pentsatu zuen eta Maiatzaren 15a (San Isidro) eguna aukeratu zuten. Harrez gero, egun horretan, inguruko txistulariak herri batean elkartzen dira eta kalean jo ondoren afari bat egiten dute.

Goian esan dugunez, aurten Pasai-Donibanen elkartu ziren eta kalean jo ondoren Itxas-Mendiko elkartean afaldu zuten eta jakin dugunez oso ondo pasa zuten.

Txistularien eguna Pasai-Donibanen

Parkea abandonaturik dago. Jendea haserre. Astean behin bakarrik
garbitzen dute. Ez dute belarra mozten, ez landare berriak jartzen,
kulunpioak kendu dituzte.

Martxa honetan zein da parkearen etorkizuna?

Noren ardura da eta zergatik utzi dute bertan behera?

Uda kanpaina

Martxan da berriro koxtapeko piraguismo sailak antolatzen duen uda kanpaina. Ikastaro hauetan parte hartzeko haurrek 8-16 adin tartekoak behar dute izan, baldintza bakarra igeriketa menderatzea delarik. Hauexek dira 6 ikastaroen datak, ordutegiak eta matrikulazio epeak:

1. ikastaroa: ekainaren 6tik uztailaren 11ra 10:00tatik 11:30tara. Matrikulatzeko epea: ekainak 26.
2. ikastaroa: ekainaren 6tik uztailaren 11ra 11:45tatik 13:15tara. Matrikulatzeko epea: ekainak 26.
3. ikastaroa: uztailaren 14tik 24ra 10:00tatik 11:30tara. Matrikulatzeko epea: uztailak 10.
4. ikastaroa: : uztailaren 14tik 24ra 11:45tatik 13:15tara. Matrikulatzeko epea: uztailak 10.
5. ikastaroa: abuztuaren 4tik 14ra 10:00tatik 11:30tara. Matrikulatzeko epea: abuztuak 1.
6. ikastaroa: ikastaroa: abuztuaren 4tik 14ra 11:45tatik 13:15tara. Matrikulatzeko epea: abuztuak 1.

Ikastaroa burutzeko ordaindu beharrekoa 30 eurotan kokatzen da, eta izen-emate paperak Polikiroldegian eta Bar Sanjuandarran eskura daitezkelarik. Indormazio gehiago nahi izanez gero: Maripi, 943 529 291 / 620 753 831.

Bi arraunlarien itzulera

Arraun denboraldia hasi denez Pasai-Donibaneko bi arraunlariekin, Mikel Etxeberria eta Igor Makazagarekin, solasaldi bat eduki dugu.

Zuen burua aurkeztu:
Mikel: Ni Mikel Etxeberria naiz, eta 28 urte ditut eta PasaiDonibanen bizi naiz.
Igor: Ni Igor Makazaga naiz, 30 urte ditut eta Orion bizi naiz.

Nolakoa izan da zuen ibilbidea arraun munduan?
Mikel: Ni 1990.urtean hasi nintzen arraunean, eta 1999.urtean lan kontuagatik utzi egin behar izan nuen, baina arrauna beti buruan eraman dut, eta aurtengo denboraldian arraunlari gehiago itzuliko zirela esan zidatenean buruari bueltak eman nizkion eta lana egokitzen saiatu nintzen. Azkenean ez nuen lana egokitzea lortu eta sei hilabeteko eszedentzia eskatu dut arraunean egiteko asmoz, kamioia aparkatuta utziz.
Igor: Nire kasuan berriz, 1988.urtean hasi nintzen, eta 2001.urtean utzi nuen, lan arazoagatik ere bai, lanean turnoka hasi bainintzen. Aurtengo denboraldirako ,berriz, lan arazoa konpondu dut eta posible izan dut arrauna egitera itzultzea. Gainera ilusio handia nuen berriz arraunean egiteko herriko egoera aldatu baita, gaur egun arraun talde bat dago eta denak elkarrekin gaudenez ilusioa nuen trainera horretan arrauna egiteko.

Traineran bakarrik ibiliko zarete?
Mikel eta Igor: Traineriletan ibili gara, baina orain zortzikoan hasi garenez, trainerila alde batera utzi dugu, eta zortzikoan buru belarri gabiltza, ekainaren 1ean Euskal Herriko eta Ekainaren 7-8an Espainiako txapelketak baititugu.

Ilusio handia dugu, biok inoiz ez baitugu zortzikoan Espainiako txapelketa irabazi. Irabazteko itxaropena badugu, baina badakigu zaila izango dela, hala ere, ilusioz beterik gaude. Nire kasuan (Mikel) arraunera itzultzeko arrazoi nagusiena zortzikoan zerbait ona egiteko gogoa nuelako izan da, arantza zortzikoan baitaukat.

Zortziko txapelketa bukatzen denean, traineran murgilduko gara buru belarri.

Trainera aipatu duzuenez, aurten zer egingo duzue ? Nola ikusten duzue denboraldia ?
Mikel eta Igor: Gure prestakuntza ondo doa eta gainera 20arraunlari inguru egongo gara traineran, ondorioz aldatzen ibiltzeko aukera edukiko dugu, eta hori garrantzitsua da, trainera denboraldia luzea delako eta estropada ugari baitaude.
Baina leia handia egongo dela badakigu, hor goian Astillero, Castro, Meco eta Orio ibiliko dira, baina gu ondo ibiltzea espero dugu, esperantza hori dugu eta ahal diren emaitza hoberenak lortu nahi ditugu.

Gaur egungo egoera Pasai-Donibanen orain dela 10 urterekin alderatuz aldatu egin da, zer deritzozue ?
Mikel: Orain dela 10 urteko egoera zaila izan zen herri guztiarentzat, eta hori arraunarentzat txarra izan zen. Orain pixkanaka egoera normalduz doa eta asko gustatuko litzaidake Pasai-Donibane izenean Kontxa irabaztea.
Igor: Nire kasuan, nik banaketa bizitu nuen eta gogorra izan zen. Beti pentsatu izan dut Pasai-Donibanen traineru bakarra egon behar zuela, horregatik gaur egungo egoerarekin pozik nago eta egoera berri hau izan da nire kasuan arraunera itzultzeko arrazoi nagusiena.

Aurrera begira, gaurko egoerak laguntzen al du gazteak arraunean hastea?
Mikel eta Igor: Egoera normalduz joateak asko lagundu duela pentsatzen dugu, eta azken bi urte hauetan gazte asko hasi da arraunean, bai kadete mailan bai jubeniletan, eta gainera oso serio hartu dute arrauna. Horrek pozten zaitu, erreleboa hor baitago.

Horrekin batera, arraunarekiko zaletasun gehiago dago herrian eta horrek izugarrizko poza ematen digu, ea pixkanaka lortzen dugun garai batean zegoen afizio handia, jendea berriz arraunaren mundura hurbiltzea eta denak Pasai-Donibaneko traineruarekin bat egitea.

trintxerpe

Trintxerpe XXI elkarteak Urban Planaren inguruko engatik dituen kezkak azaleratu ditu

Trintxerpe XXI elkarteko kideak prentsa aurrera azaldu ziren pasa den maiatzaren 14an Urban Planaren inguruko lanetan aurreikusita zeuden epeak eta pausuak betetzen ez direla salatzeko. Jubilatuen aretoan egindako agerraldian, elkarte honetako kideek Urban Planak pasaialdearen etorkizunerako duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten, eta hori dela eta kezkati azaldu ziren, denbora aurrera egiten duen ahala, egitasmoak egikaritzeko denbora agortzen delako. Bestalde, proiektuaren inguruan dagoen informazio falta salatu nahi izan zuten. Hauen ustez, informazio ezak bizilagunen urduritasuna areagotzen du, batez ere Urbanek aurreikusten zituen lurretan okupazio berriak ematen direla ikusi denean. Informazio gabezi honi aurre egiteko eta trintxerpeko bizilagunek La Herreraren inguruan egin behar diren guztietaz berri izan zezaten, Trintxerpe XXI elkartekoek alkate-gai guztiekin bilera bat antolatu zuten prentsaurrekoa deitu eta hurrengo egunerako. Alkateordetzan egin zen bilera honetan, interesa zuten bizilagun guztiek parte hartu zuten eta, bertan, udalaren ordezkariak izan ziren bizilagunen zalantzak argitzeko xedez, besteak beste, Juan Carlos Alduntzin (Badia Plataforma), Miriam Cano, (EA), Jose Manuel Anso (EAJ) eta Jesus Maria Garde (EB). Bilera honetan, Portuko Agintaritzak jokatzen ari den papera eztabaidatu zen, eta Urban plana gauzatzeko gelditzen den epean egitekoak ugari direla nabarmen gelditu zen.

AuBko kideek hauteskundeiruzurra salatzeko gose greba egin dute alkateordetzan

Hamabost egunez egon dira Autodeterminaziorako Bilguneko lau kide gose greban alkateordetzan, udal eta foru hauteskundeetan AuBk zein herri plataformek parte hartu ezin dutela saltzeko xedez. Joserra Etxeberria, Paco Gastezi, Pedro Alvite eta Xabier Silveira bertan izan diren bitartean euskal gizartearen eremu askotako ordezkarien bisitak izan dituzte, den-denak, AuBrentzat boza eskatuz. Gose greba amaitzeko ekitaldian Joserra Etxeberria bozeramaileak gose grebari "demokratikotasun eza eta putxerazoa" salatzeko ekin ziotela esan zuen, eta, aipatu zuenez, pozik dira ekimen honen bidez lortutakoarekin, jendeak gertatzen ari denaz ohartzea lortu dutelako. Gose huelgaren amaiera ekitaldira bertaratutako plataformetako kideek beren botoa ur botila hutsez egindako hautestontzian sartu zuten, gose grebalariek zain zuten salda beroa edateari ekin aurretik.

Trintxer Mendi Taldeak asteburu batetarako mendi irteera antolatu du

Uztailaren 5ean goizeko 6ak aldera irten eta hurrengo egunera arte luzatuko den mendi irteera antolatu du Trintxer Mendi Taldeak. Lehenengo egunean, Panticosa-Ibones Azules-Respumoso ibilbidea egingo da. Ondoren Respumosoko aterpean afaldu, lo egin eta hurrengo goizean bertan gosaldu eta gero Respumoso-Teberrai-Pon't d' Espagne etapa egingo da. Izena emateko epea ekainaren 13ra arte egongo da zabalik. Izena eman nahi duenak Euskadi Etorbidean dagoen Sonesa Kirolak dendara hurbildu behar du eta han prezioaren erdia aurreratu beharko du. Irteeraren prezioa 45 euro ingurukoa izango da. Irteerara abiatzeko hitzordua, uztailaren 5ean, goizeko 06:00etan DAX Tabernaren parean.

antxo

Pasajes txapeldun!

Joan den maiatzaren 10ean lortu zuen C.D. Pasajesek 3. mailara igotzeko txartela. Hori bai hori jaia Molinao futbol zelaian bizi izan zena! Herrian ia arimarik ere ez zegoen larunbat arratsalde horretan, antxotarrak futbol zelaian baitzeuden kolore zuri-gorriak bultzatzen. Branka aldizkariak ere bat egiten du alaitasun horrekin, eta horren testigantza emateko igoera lortu duten lau jokalarirekin solasaldia egiteko aukera izan dugu.

Hitzordura apur bat berandu iritsi dira lau solaskideak. Noski, nola ez, igoeraren partidutik egiten zuten lehenengo entrenamenduren ondoren dugu zita, eta normala denez, aldageletan larunbatean eginiko balentriaz luze hizketan ariko zirela pentsatu dugu. Hala ere, eta espero bezala, umoretsu datoz Imanol Seijas, Asier Juanbeltz, Zuhaitz Larrea eta Jon Eskisabel kapitaina.

Espero al zenuten denboraldi hasieran horrelakorik?
Egia esan behar badugu, ez. Talde bakarra igotzen da preferente mailatik hirugarren mailara. Hala ere, klubaren helburua zen igoera, aurtengoan maila oneko jokalariak eskuratzeko ahalegin izugarria egin baitu aurreko urtetako maila ona hobetzeko asmoz. 17. ihardunalditik aurrera lehenengo postuan izan gara, gol kopuru asko sartu izan dugu zenbait norgehiagoketan, eta pixkanaka igoeraren helburua errazagoa dela sinistera iristen zara. Oso talde indartsuak zeuden arren, konfidantzaz aurrera jo dugu eta azkenean amtsa zirudiena gauzatu dugu.

Donboraldia aurrera zioan heinean, nola ikusten zenuten egiten ari zinetena?
Aurtengoan teknikoki oso ona den talde bat osatzea lortu dugu. Futbolera oso ondo jokatzen dugu, eta horren adibide da gure mailan golik gehien sartu duen taldea izatea. Gianera jokalarien arteko giroa oso-oso ona izan da. Taldean gauden jokalari gehienek minutu mordoxka jolasteko aukera izan dugu, astebururo titular izatea oso zaila zelarik. Horrek, talde barneko giorak alegia, egin dugunaren ardatzetako bat dela uste dugu, taldean giro onik ez dagoenean zelaian antzematen baita.

Orduan, zergatik aurtengoan igoera eta aurreko urtetan ez?
Aurreko urtetan bukaeraraino borrokatu dugu, igoera beti ere helburua zelarik. gauzak horrela suertatzen dira. Beharbada beste urteren batetan talde 'hobea' genuela esaten zuten, eta igoerarik ez lortu... Zaila da eratzutea zer aldatu den aurreko urtetatik aurtengora. Ardatz asko azteru beharko genituzke...

majestik
Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA
EGUNEKO MENUAK ETA KARTA ZERBITZUA
Eskalantegi, 118
Tfno: 943 520 770
Molinao Auzoa
PASAI ANTXO

KAMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia. 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)

Nabaritu al duzuen zuen inguruan giro berezirik urtean zehar?
Bukaera arte betiko jendea hurbildu da Molinaora. Normala denez, taldearen martxa ona ikusita eta ogoera esku-eskura zegoela, jende gehiago izan dugu gure partidutan. Nabaritu dugun komentario bat 'futbolera ondo jokatzen duen taldea' garela da. Hala ere, nahiz eta Antxon giro oso ona egon taldearen inguruan, oso zaila da jendea futbol zelaira igotzea.

Zein izan da denboraldiko unerik zailena eta politena?
Gure usrez partidurik garrantzitsiuena Tolosaren aurka jokatutakoa izan zen. Orduan, 6-7 puntutako aldea eramaten zigun talde horrek. Hau irabazi, eta abendu-urtarrila parte horretan garrantzitsua izango zen zerbait egiteko aukera genuela 'sinisten' hasi ginen. 17. ihardunaldian sailkapeneko lehenengo postuan jarri ginenetik, are eta indar haundiagoz ekin genion lanari. 7-0 Oiratzunen aurka, 8-0 Hernaniri irabazi, 4.0 Zarautzi... Baina noski, unerik politena igoeraren egunekoa da.

Hurrengo urterako zer?
Uste dugu gaur egun gauden jokalarien gehiengoak jarraituko duela 3. mailan ere. Hasiera batetik maila mantentzea izango da helburua, maila haundiko taldeak aurkituko baititugu, esperientzia haundiko jokalariak dituztenak. Gainera, beste futbol mota bat egiten da 3, mailan, bortitzagoa eta itsusiagoa nolabait esateko. Gogortasun haundiz jokatzen dute igo berri garen mailako jokariek, eta ez dakigu guk futbolera jokatzeko dugun era azaltzerik izango dugun.

Eta entrenatzailea?
Nabari da jokalarias izandakoa dela, hurbiltasun haundiz hitzegiten baitigu. Gainera, askatasun haundia ematen digu zelaian, berak esandakoak errespetatuz noski. Oso pestsona ona da ere, aldagelako giro ona izatearen beste arrazoietako bat Luisfer izan da.

Esan al daiteke Pasai Antxon futbol harrobi ona dagoela?
Haritz Mujika, Diego Asorey, Oskitz Estefania... Izen zehatz batzuk badaude, baina 11 antxotarrez osaturiko talde indartsu bat egiteko aukerarik ez dago gaur egun. Jubeniletatik gora hutsune bat dagoela uste dugu. Adibide bezala, 2. reginoaleko taldean oso antxotar gutxi dago.

Erreala zer?
Denboraldi itzela egiten ari da. Azken hiru urteak oso txarrak izan arren, aurtengoan horiek ahazteko aitzakiak ematen ari da Reala. Txapeldunak izan dira ere!

Ondoren futbolzale sutsuek bakarrik izaten dituzten eztabaidatan hasi gara, ea 'Adidas' baloia 'Mikasa'-koa baino hobea den, eta futbolean ezagunak diren hainbat pertsonairi goitik beherako errepasoa eman diogu. Aupa Pasajes!

Antzerki emanaldiak Mimos tabernan

Ohitura bihurtu den bezala, Mimos tabernak antzerki emanaldiak antolatu ditu datozen hilabetetarako. Aurrekoetan izan duten arrakasta ikusirik, antxotarren antzerki-zaletasuna indartzeko ahaleginean, hauexek dira ekaina eta uztailerako emanaldiak: ekainaren 19an 'Las insustanciales', eta uztailaren 17an, 'Dos chicas de azucar'. Antzerkiak 'Oliver Proctions' taldekoek burutzen dituzte, eta aipatu ditugun egunetako 21:00tan izango dira emankizunak Mimosen. Sarrera, debalde.

Laurak Bat egunna

Aurtengoan ere Pasaiako Merkatari elkarteak, Laurak Batek, egun borobila antolatu du ekainaren 8rako. Aurtengoan bi zonaldetan banatua egongo da Antxon ospatuko den jaia: batetik Gure Zumardian kokatuko den karpan herriko merkatariek beren produktuak erakusteko aukera izango dute, eta bestetik, Azoka berrituan artisau pasaitarrek nola lan egiten duten zuzenean ikusteko aukera izan dugu. Horretaz gain, egun guztian zehar hainbat ekitaldi antolatu dira, hala nola, diana, siziriak, dantzariak. txekor-jatea, haurrentzat jolasak...

Honekin batera, ekainaren 6 eta 7an, 3. pintxo txapelketa antolatu du merkatarien elkarteak.

URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goiherri
C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTXO

MIMOS TABERNA
tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

san pedro

San Pedroko Bizilagun Elkarteak antolatuta alkate-gaien quoruma izan zen kofradian

San Pedroko bizilagun elkartearen ekimenez, alkatetzarako beraien burua aurkezten zuten hautetsiekin quoruma izan zen pasa den maiatzaren 6an herriko kofradian. Bizilagun ugarik bertaratu zen elkarteak iluntzeko 20:15etan jarritako hitzordura.

Alkate-gai guztiek quorumean parte hartzeko gonbita jaso zuten arren, bik, Guillermo Sanchez Barrak PPko alkate-gaiak, eta, Jose Manuel Ansok, EAJkoak, ezin izan zuten parte hartu. Han izan ziren, orduko alkate zena eta azken hauteskundeetan boza gehien lortu dituen Juan Carlos Alduntzin Badia plataformaren izenean, Izaskun Gómez, PSE-EEko alkate-gaia, Miriam Cano EAren izenean eta Jesus Mari Garcia Garde EBren izenean. Mahai berean eseri ziren Maitane Artola Bizilagun Elkartearen lehendakaria eta Ismael Elizalde, azken hau, moderatzaile lanetan.

Bertaratutako alkate-gai guztiek San Pedroko herriarentzat zituzten asmoak azaltzeko aukera izan zuten 10 minutuz, eta, interbentzio hauen guztien ondoren bizilagunek 5 minututako tartea izan zuten alkate-gai bakoitzari galderak eta kezkak luzatzeko. Horrela sanpedrotarrentzat interesezkoen diren gaien inguruko eztabaida joan zen azalarazten mahai gainera.

SAN PEDRORAKO ASMOAK

Alkate-gaien errondari Izaskun Gómezek ekin zion. PSE-EEko hautetsiak barruti guztiek komunean dituzten arazoak aipatuz ekin zion bere interbentzioari. Besteak beste, eguneroko garbitasuna, etxebizitza, edo eta herriko komertzioa indartzera zuzendutako merkatarien zinegotzigoaren sorrera aipatu zituen.

San Pedrorentzat zehazki dituzten planei dagokionez, frontoian lur azpiko aparkalekua eraikitzearen alde daudela aipatu zuen, honen goialdean aisialdirako gunea aurreikusten dutelarik. Salbio izenez ezagutzen den zonaldeari dagokionez, " San Pedroko birika" izan beharko lukeela esan zuen, eta hori dela eta, lehen urratsa bertan dagoena lurrera botatzea litzatekeela ondoren bertan zer egin behar den erabakitzeko. Esnabide, Puntaseko pasealekua eta Aizkorretarako planak ere izan zituen mintzagai.

Ondoren Jaun Karlos Aldutzinek hartu zuen hitza, Badia plataformaren aurkezpena egiteko. Plataformak lanerako hiru ardatz nagusi izango dituela iragarri zuen Jaun Carlosek. Lehenengo ardatza, "Pasaia denon artean eraikitzea" izango dela esan zuen, eta zentzu horretan herri parte hartzailea eraikitzera bideratuko dituztela indarrak. Bigarren ardatza honela definitu zuen: "pasaiak bere lurraldea behar du bideragarri izateko", eta azkenik, hirugarren ardatza, garapenaren ingurukoa. Badiako hautetsiak esan zuenez, pobrezia eta bazterketa sozialari aurre egiteko bitartekoak eskainiko dira. San Pedrorentzat aurreikusten diren asmoei dagokionez, 320 etxebizitza baino gehiago eraikiko direla aipatu zuen, eta horietatik 120 babes ofizialekoak izango direla. Aparkaleku plaza asko eraikitzear daudela iragarri zuen, eta baita Salinas eta Pablo Enea amaitu eta Zamatete kalea bihurtzeko lanak hasiko direla ere. Erdigunea oinezkoentzako gune izango dela aipatu zuen. Puntas pasealekuan lanak egingo direla eta Ondartxon ontzi museoaren zati bat eraikiko dela. Era berean, herria ama-lurrari errespetuan eraiki nahi dutela eta, kanpo kaiari zein errauskailuari ezetz argia emango diotela iragarri zuen.

Ondoren EBko alkate-gai, Jesus Maria Garderentzako txanda ireki zen. Honek, eraikitzeko dauden lur guztietan babes ofizialeko etxebizitza gehiago aldarrikatuko dituztela esan zuen. Bestalde, nekazari lurren kalifikazioa mantentzearen alde egin zuen, eta baita alde zaharreko etxebizitzak birgaitzearen alde. Gazteriaren arazoentzako irtenbideak aldarrikatu zituen, eta baita bazterketa soziala gehien pairatzen dituztenentzat ere. Ondartxori dagokionez, Gardek, EBa ontzi museoaren zati bat bertan kokatzearen kontra dagoela esan zuen, eta beraiek, hondartza berreskuratu eta inguruan aisialdirako gune bat zabaltzearen alde egingo dutela. Kasko historikoa oinezkoen gune bihurtzearen aldekoa, eta aparkalekuen zonaldeetan txandakako sistema ezartzearen beharraz mintzo zen ere. Frontoiaren posizioa aldatu eta ingurune horretarako planteatzen den proiektuan Proisa kontutan hartzekoa dela esan zuen. Salbioko liburutegia handitu eta kultur zentro bat zabaltzearen alde egin zuen baita ere.

Azkenik, Miriam Cano, Eusko Alkartasunako hautagaiak hartu zuen hitza. Bere ustez funtsezkoa da San Pedroko alde zaharra eta portuaren arteko muga ondo nabarmentzea, kaia turismoa indartu ahal izateko berreskuratuz.

Etxebizitzaren gaiari dagokionez, egun martxan dauden interbentzioak bultzatu eta alde zaharretan dauden etxebizitza zaharrak berriztatzearen alde egin zuen. Ondartxori dagokionean, esan zuen gauza handia dela ontzi museoaren zati bat bertan kokatzea, bere ustetan San Pedro eta Donibane museo horren zati dinamikoa behar dutelako izan.

Ondoren, bizilagunen interbentziorako txanda ireki zen, eta bertan entzun ziren galderen baitan, esan daiteke, interes gehien piztu zuten gaietako batzuk, Ondartxori buruzkoak, aparkalekuen auziak eta oinezko guneak, Portuko Agintaritzarekin harremana edo eta komertzioaren indartzea izan zirela.

Pabela zinekluba

Ekaineko igandeetako emanaldiak izango dira Pabelak aurtengo ikasturtean eskainiko dituen azkenekoak. Udara, oporretarako zein datorren irailetik aurrera hasiko den programazio berria prestatzeko abagune aproposa izango da. Bitartean, zine zale guztiek ekaineko azken lau igandeetako eskaintza ezin oparoagoaz gozatzeko parada izango duzue. Hona hemen ekaineko emanaldien zerrenda:

Ekainak 1:
Film Laburra: 'Bajo C', Rafa Gomezek 2001. urtean zuzendutakoa.
Film luzea: 'Ser o no ser', Ernst Lubitschek, 2001ean zuzendutakoa filma.

Ekainak 8:
Film laburra: 'El diario de la abuela', Javier Ocaña zuzendariarena eta 2001.urtean filmatutakoa.
Film luzea: 'Mulholland drive'. Davidek Linchek 2001. urtean zuzendutako pelikula.

Ekainak 15:
Film laburra: 'Robando el rock&roll', Miguel Angel Lamata iaz zuzendutakoa laburra.
Film luzea: 'Sueños de seductor'. Hebet Gross 1972an zuzendutakoa.

Ekainak 22:
Film labarra: 'En camas separadas'. Javier Rebollok. 2002. urtean zuzendutakoa.
Film luzea: 'La habitación del hijo'. 2001.urtean, Nanni Morettik zuzendutakoa.

jar ezazu zure iragarkia Brankan

HAUXE BAI DELA MAUKA POZ BETE ETA GOIA ZERUKO BODEGOIA SAN PEDROK HEMEN DAUKA
San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK
ARDOEN ETA RIBEIROEN SALMENTA hamaiketakoak eta meriendak
Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

Palestina edo kontzentrazioesparru erraldoiaren barna

TESTUA ETA ARGAZKIAK LOREA BERGARA ETA DAVID ALVAREZ

Iraken aurkako gerratik euskaldun internazionalisten talde bat itzuli berri zela, bi antxotar Palestinarantz abiatzekoak zirela jakin genuen. Ekialde hurbileko gatazka ezin korapilatsuagoa hurbiletik ezagutzeko asmoz zihoazen hara Lorea Bergara eta David Alvarez. Komite Internazionalistek antolatutako brigada batekin izan dira bertan. Herriko bi gazte hauek han ikusiko zutenaren lekukotasun zuzena bildu nahi izan dugu Brankako orrialdeetan, eta bidaiaren kronika idatz zezatela eskatu genien. Hona hemen han ikusitakoaren kontakizun kitzikagarria.

Hilketak astero, etxeratze-agindua bi urte eta erdiz,... nola bizi liteke herri bat horrela? Harrituriк geldituko zinatekete Palestinar herriaren errealitatearekin. Maiz ikusten ditugu gatazka honen inguruko irudiak telebistan, baita egunkarietan albisteak irakurri ere, baina hala eta guztiz ere, egunerokotasunaren gogorkeria informazioan islatzen ez den zerbait da.

Gatazka hau gehiegi luzatu da urtetan. Urte gehiegi beraien lurraldean aske bizitzeko aukerarik ez dutela ikusten dirauten Palestinarrentzat. Urte gehiegi orain 100 urte iritsitako pertsonek nola hiltzen dituzten ikusteko, beraien etxeak nola suntsitzen dituzten ikusteko, nola umiliatzen dituzten ikusteko...

Errealitate osoa ezagutzeko denbora asko behar da, baina han eman genituen 13 egunetan palestinarrekin elkar bizitzeko aukera izan genuen.

Ezagutu genuen lehendabiziko hiria Hebron izan zen. Hebron, Jerusalemetik hegoaldera dagoen Palestinako hiririk garrantzitsuenetarikoa da. Bigarren Intifada hasi zenetik (2000. urtea), hiria etengabeko etxeratze-aginduan bizi da, gau eta egun. Haraino iristeko militarren kontrol ugari gainditu beharra dago, eta hiriaren barna ere militarrak nonnahi daude Palestinarrei beraien etxeetatik ateratzea eragotziz. Hiriko alde zaharreko etxebizitzetan bizi ziren palestinarrak bota egin dituzte, eta bertan judutarren kolonia bat ezarri da. Kolonia hauek emeki-emeki hiri guztian barreiatzen doaz, palestinarren etxebizitzak suntsituz, eta koloniak gero eta handiagoak bihurtuz.

Gu suntsipen arriskuan zeuden hauetako lau etxebizitzetan izan ginen. Judutarren kolonia bat zuten 100 metrotara, eta etxeen eraiste agindua emana zegoen ordurako. Etxekoek lau anai-arreben familia bat osatzen dute eta bertan bizi dira iloba eta semealabekin. Beraien etxebizitzak kolonoak iritsi baino askoz ere lehenago eraiki ziren bertan, baina hala eta guztiz ere, litekeena da, handik alde egin behar izatea, kolonoen presioa jasanezina egiten delako. Soldaduek zein kolonoek jaurti harriak eta balen eraginez leihoetako kristalak hautsita daude. Ateak tiroen eraginez zuloz beteak ageri dira; granaden talkak daude, hormetan hondeamakinen markak... eta judutarren etxeen zabaltzetan frankotiratzaileak.Etxeak inguratzen zituzten lurretan 600 bat fruitu zuhaitz zeuden. Orain denak ebaki dituzte eta etxeen inguruan alanbre arantzaduna jarri.

Arratsero soldaduek etxeetan sartzen dira mugitzen den edozeri tiro eginez. Gau batez honen lekuko izan ginen. Etxe batean ginela tiroak entzun ge-

nituen oso hurbil. Guretzako ura zekarren 5 urtetako haur baten kontra tiro egin zuten.

Familiak dagoeneko onartua du beraien etxea suntsitu egingo dutela, baina bertan mantentzen dira azkeneko momentura arte. Nahi bakarra beraien sufrikarioren lekukotasuna jasoko duen presentzia internazionala bertan egotea dute, ondoren gure herrialdeetan beraien errealitatearen berri izan dezagun.

Egoera gogorra bada ere, Palestinarrengan irribarreak eta adeitasuna baino ez duzu topatuko. Duten guztia zurekin zein auzoko gainontzeko familiekin konpartituko dute. Hartu gaituen familia elkarte baten buru da. 11 lagunekin lan egiten duen mediku zentro bat dute (beti ere soldaduak ez daudenean). Bertatik behar gehien dituzten familientzat laguntzak bideratzen dituzte eta haurrei zuzenduriko hainbat laguntza psikologikoko ere.

Etxeratze agindua oso gogorra denean, Mugarik Gabeko Medikuek palestinarren etxeetara joaten dira gaixoak bisitatzera, beraiek etxetik atera ez gero, tirokatzen dituztelako.

Haurren %98ak arazo psikologikoak ditu. Horren adibide da portzentaje altu batek ohean pixa egiten duela. Gero eta gehiago dira hitz egiten eta komunikatzen ikasteko arazoak dituzten haurrak. Kolonietatik hurbilen bizi diren haurrak arreta bereziak hartzen dituzte, beraiek direlako presio gehien jasaten dutenak.

TANUN

Internazionalisten beste talde bat iritsi eta gu Tanunerantz abiatu ginen. Tanun herri nekazari txiki bat da eta bertan 18 familia bizi dira. Beraien etxeek 200 urtetik gora dituzte, baina, kolonia batek herriko inguruko mendixketan hartu du lekua, eta momentu horretatik aurrera palestinarrentzat bizitza jasanezina bihurtu da.

Beraien artaldeekin ateratzen badira tirokatzen dituzte; beraien lurrak lantzen egonez gero tirokatzen dituzte; gauetan, armatutako kolono taldeek sartu-irtenak egiten dituzte herrira tiroak jaurtiz eta kaleetan barna ikara zabalduz; linea elektrikoa eta ur-horniketa suntsitu dute. Presio honen eraginez palestinarrek 2002ko urrian herritik alde egitea erabaki zuten. Baina, astebete beranduago herrira bueltatu ziren, orduan, presentzia internazionalaren laguntzarekin. Oraindik ere kanpotarren laguntza ezinbestekoa da bertan, bestela, edozein gauza egitera doazela tirokatuko dituztenaren beldur bizi direlako bertako palestinarrak. Argi sorgailua piztu edo itzali (argia arratsaldeko 19:00etatik 23:00etara bitartean dute soilik), artzainak lagundu, gauetan guardiak egin...dena atzerritarren laguntzaz egin behar izaten dute.

Orain dela hilabete batzuk sarnaren gaixotasuna pairatzen hasi dira dituzten bizi baldintza kaxkarren eraginez. Ez dute asistentzia medikurik. Mediku bat bi hilabetetik behin pasatzen da herritik.



TANUNETIK TURKAREMERANTZ

Zisjordaniatik barna ibiltzea zailtasun handiak ditu. Taxian mugitzea ezinbestekoa da, eta taxilarien abileziari esker soilik lortzen da kontrol gehienak gainditzea. Hala eta guztiz ere, batzuetan taxitik jaitsi beste erremediorik ez da izaten, eta orduan, oinez gainditu behar izaten dira chekc-point izenez ezagutzen diren kontrol militarrak. Hauetako kontrol batean, Nablusen kanpoaldean, israeldarrek Palestinarrekiko duten jokabidearen lekuko zuzenak izan ginen. Batzuetan soilik emakumeak eta haurrak uzten dituzte kontroletik haratago igarotzen, eta besteetan inori ez diote uzten pasatzen. Kontrolaren bi aldeetara jende piloa zegoela, tiroak entzun ziren. Bertan bonba bat zegoenaren aitzakiapean, soldaduek tiroak jaurtitzeari ekin zioten, eta jende guztiari atzera egiten behartzen zioten. Ondorioz, palestinarrek ezin dute lanera joan, edo eta beraien senitartekoekin biltzera. Nablus asko zigortutako hiria da. Bertan, Intifadako lehendabiziko bi asteetan 75 lagun hil zituzten, eta handik aitzina, astero hildako bat egon da gutxienez.

Taxilariari esker Turkaranera iristea lortu genuen. Turkaran Zisjordania eta egun Israeleko lurraldea denaren artean kokatzen da, iparraldean. Hiri honetan, israeldar gobernua harresi bat eraikitzeari ekin dio. Harresiak zonalde guztia inguratzeko balioko du. Ondoren eta palestinarrak beraien artean bakartzeko xedez, herri guztien inguruan eraiki nahi dituzte harresiak. Kontzentrazio -esparru erraldoi bat da hura. Etxeratze agindua hemen oso zorrotza da eta inor ezingo da bertatik atera beraien baimenik gabe. Eguerdiko 12:00etan kaleak hutsik ageri dira, eta tiroak egun guztian zehar entzun daitezke, baina bereziki iluntzetan eta gauetan. Etxe eta autoen kontra jaurtitzen dituzte tiroak, eta tarteka, beraien dibertsiorako, errefuxiatuen eremuak erasotzen dituzte. Modu honetan ikara barreiatzen da herritarren artean.

Etxe ugari suntsituta ageri dira. Beste etxe batzuetan balen markak ageri dira. Dendak ezin dituzte zabaldu eta elikagaien eskasia igartzen hasia da. Tankeak kaleetan ikustea ohikoa da. Azkeneko hiru hilabeteetan 25 lagun hil dituzte.

Hala eta guztiz ere, palestinarrak antolatuak daude. Beraien lurrak eta eskubideen alde borrokan ari den nekazarien elkarte bat ezagutzeko parada izan genuen, harresiaren eraikuntzarekin beraien lan-lurrak galtzen dituzte eta. Harresiaren parean manifestazio bat deitu zuten hauek eta bertara internazionalista ugari bildu ginen (italiarrak, holandarrak, ipar amerikarrak, ingelesak eta euskaldunak). Bertan izan ziren baita palestinarren eskubideen defentsan lanean dirauten hainbat elkarte israeldar ere.

Honaino gure bidaia. Gure saiakera palestinar herriaren egoera trazu handietan islatzea izan da, baina hasieran esan dugun bezala, errealitatea sakonki ezagutzeko denbora asko behar da.

Israeldar gobernuak internazionalisten sarrera debekatu berri duen arren, hara hurbiltzera animatu nahi zaituztegu Palestinar herriak denon laguntza behar baitu.

Zure ustez zein postutan sailkatuko da aurtengo liga Reala?













1 Jon Tolosa.
36 urte. Prentsa banatzailea.
Txapelduna izango dela uste dut.

2 Joxe Mari Puy.
31 urte. Mekanikoa.
Aurreneko bien tartean gelditukoda. Hala ere, orain arte lortutakoa meritu handikoa da.

3 J ose Antonio Jauregi.
70 urte. Jubilatua.
Bigarrena.

4 Maria Maneiro.
67 urte. Jubilatua.
Irabazi egingo dute.

5 Santiago Lapido.
68 urte. Jubilatua.
Nik uste dut txapeldun irtengo dela.

6 Maria Luisa Crujeiras.
32 urte. Serigrafia eta tanpografia.
Lehenengoa, noski!.

7 Jesús Rivas.
62 urte . Jubilatua.
Nik zer dakit. Nik ez dut futbolari buruz ezer ulertzen.

8 Juan Ramón Etxeberria.
42 urte. Telefoniako langilea.
Lehenengoa zalantzarik gabe.

9 Estitxu Medinabeitia.
23 urte. Haurtzaindegiko langilea.
Lehenengoa. Atzo ospatzen egon ginen jada.

10 Iñaki Fraile.
35 urte. Serigrafian aditua.
Nik uste dut txapeldun gelditukodela.

11 Edurne Txintxurreta.
7 urte. Ikaslea.
Lehenengoa. Txapeldunak izango dira.

Iker Goenaga; "ni trikitilaria naiz"

TESTUA EDURNE URKIOLA ARGAZKIAK LANDER GARRO

Trikitilaria. Zizurkilgoa, nahiz orain Alkizan bizi. Pasaiarekin, lotura estua du, orain 10 bat urtetik, bertara etorri baitzen trikitixa irakasle. Soinua joz egin ditu 20 bat urte, eta oraintxe kaleratu berri du azken lana: txikitxuterik. Hau aitzakia hartuta, Ikerrekin tartetxo batez egoteko parada hartu dugu.

Nonbaitetik hasi behar dugulako, diskoari buruz hitz egiten hasiko gara. Txikitxuterik, zure izena daraman hirugarrena dela uste dugu; arrebarekin batera Binilo baten portadan gogoratzen zaitugu, Soinugorri ere orain urte batzuetako kontua da eta orain hau. Egingo al zeniguke laburpen txiki bat?

Nire izenarekin kaleratutako lehenengoa da. Lehenengoa, binilo hura, Maixa eta Ixiarrekin erdibana kaleratutakoa izan zen. Laburpen bat... 8 urterekin soinua ikasten hasi nintzen, eta berehala plazetan. 9 urterekin aurkeztu nintzen lehen lehiaketan eta irabazi egin nuen. Gauzak horrela, Elkarrekoek deitu egin gintuzten, eta orduan Maixa eta Ixiarrekin diskoa grabatzeko eskaintza egin ziguten arrebari eta bioi, 1993an. Hura izan zen estudioko lehen esperientzia. Orduan ere, Sorotan Belerekin zuzeneko hainbat emanalditan aritu nintzen. Anje Duhalde eta beste batzuekin ere egin genituen emanaldiak.

98an, Soinugorri grabatu nuen. Ez da erraza, bikotea osatzen duzunean dena konpartitzen duzu, baina gero, bakarrik dena zailagoa da. Orduan banuen diskogintzaren beste ikuspuntu bat, beste modu batean ulertzen nuen. Pentsa elkarrizketetan adibidez, lehenengo diskoarekin, 3 elkarrizketa egin nituen, bigarrenarekin 30 eta gaurko egunerako azken diskoarekin horiek baino gehiago egin ditut.

Zuzenekoan ere aldaketa ugari nabaritu ditut, erromeriatan eta bikotearekin zer esan... errazagoa da. Hala ere, hori eta promozioan aurpegia bakarka ematen ere ikasi egiten da. Esperientzia

igarri egiten da.

Taldearekin batera grabatu eta aurkeztu duzu proiektu berria. Nolakoa izan da talde lana?
Taldearenak urtebete hartu du. Musikari bakoitza musika talde desberdin batetik dator. Saiatu naiz nik lortu nahi nuen soinua beraiei transmititzen. Hori ulertzeaz gain asko jarri dute. Hau igarri egiten da, moldaketetan soinuan...

Iker trikitilari, abeslari eta letragile; nahikotxo lan hartu duzu. Zer egiten duzu gustuen?
Soinua jo. Hau oinarria da. Gero, gustuko edo eroso egiten dudana musika sartzea da. Gero letra jarri eta abestu ere egiten dut, baina ni trikitilaria naiz.

Nondik jaso dituzu, nonbaitetik jaso baduzu behintzat, diskoa egiteko eraginak?
Orokorrean denetik pixka bat. Musika mota guztiak entzuten ditut. Zein jenderekin lan egiten duzun ere erabakigarria da. Haiengandik asko jasotzen da. Musika, taldea aurrera eramateko moduan, oholtzan egoteko moduan... Natxo eta Mikel Laboarengandik adibidez asko ikasi dut.

Apirilaren 4an Antxon Udala eta Korrika Kulturalaren eskutik egindako emanaldian abestietako askori izena jarri zenien, amonarena, ostutako txakurrarena, urruti dituzun lagunena... zenbat sentimendu laburbildu daitezke 12 abestitan?
12 baino gehiago. Musikari bakoitzak bere estiloa dauka. Soinu txikia behar izaten dut gaizki nagoenean, edo lan asko dudanean. Lasaiagarri bat da. Ez da ihes egitea, hori alperrik delako, baina bai gauzei aurre egiteko modu bat. Eguneroko gauzak hartzen ditut erreferentzia eta horiek adierazten ditut abestietan.

Hori guztia egiteak denbora eskatzen du, eta gainera zu ez zara horretan bakarrik aritzen, ezta? irakasle, musikari askorekin kolaboratzaile, Trikitixa Elkarteko kide, saltsa askotako perrexil... Nahi adina denbora eskaini al diozu diskoaren prestaketari?
Bai noski; horregatik pasa dira bost urte aurrekotik hona. Diskoa grabatzen ari nintzenetik beste 7 kanta sortu ditut dagoeneko. Kantak egitea ordea ez da bakarra, diskoak bere epeak dauzka, promozioa... Erosotasuna ere bada lehenago egin ez izana. Beste gauza batzuetan ere aritzeak lehentasunak jartzera behartzen zaitu.

Denbora asko kentzen dizun irakasle lanak ekarri zintuen Pasaiara. Nolaz, noiz; hitz egiguzu honi buruz pixka bat.
93ko urrian hasi nintzen 9 ikaslerekin. Ikasturte amaierarako dozena bat nituen. Hurrengo ikasturtean 30 eta gaur egun 80 inguru. Ikasle guztiak ez dira pasaitarrak eta bertakoak direnak ere lau barrutietakoak dira. Horrek gauzak zailtzen dizkigu taldetxoak... osatzeko. Loturak sortzea eta taldetan hastea garrantzitsua da, baina herri honetan ez da erraza.

Eta nolako etorkizuna ikusten diozu pasaiako trikitixari?, izango al dugu inoiz trikitilari pasaitar bati horrelako elkarrizketa bat egiteko paradarik?
Lehen soinuak betetzen zuen funtzioa, plazarik plazakoa, gaur egun ez dago. Gainera haurrek 1000 aukera dauzkate eta gero eta zailagoa da bizitzan zer egin nahi duten erabakitzea. Oso etorkizun ona izan dezake, baina gure eskuetan dago (irakasle guraso...) Niri gurasoen trikitixa erosi zidatenean gero eskatu egiten zidaten. Gaur egungo gurasoek ez dute eskatzen.
Hala ere, guk ikasi genuenean ere mordo batek ikasi genuen, eta haietatik, Gozategi, Maixa eta Ixiar, gu gera jarraitzen dugunak, eta gainerakoak?
Gauzak ondo ateratzea askotan momentu kontua da. Gaur egun zailagoa da.

Eta Pasaiatik haratago, nola ikusten duzu Euskal Herriko Trikitixaren oraina? Eta geroa?
Oraina ona. 70. hamarkadan trikitixak boom bat izan zuen Laja eta Martin ene eskutik. Txapelketan orduantxe hasi ziren eta han trebetasuna erakusteko beharra zegoen. Gero 80. hamarkadan, Tapia, Junkera... hori bera haratago eraman zuten, trikitixa, jazzarekin, rockarekin... nahastuz. 90. hamarkadan, Maixa eta Ixiar, Gozategi, Alaitz eta Maiderrekin inork espero ez zuen beste boom bat eman zen. Boom hau jaisten joan da eta orain egonkortasun momentu bat iritsi da. Hauek denek lanean jarraitzen dute.

Eta maila pertsonalagoan, Iker Goenaga gaur egun Euskal Herri mailan izen handiko trikitilaria da. Oskorrirekin, Mikel Laboarekin... lan handia hartu al dizu honaino iristeak?
Nik honaino iristea ez dut bere horretan helmuga bezala ulertzen. Helmuga trikitixaz, gustatzen zaidan horretan bizitzeko aukera izatea da. Beste guztiak unean uneko helburuak dira. Oraintxe ere beste helburu bat badut, beste disko bat grabatzea.

Eta nondik, zergatik hasi zinen?
Familiatik datorkit. Osabak, aitaren eta amaren aldetik trikitilariak ziren. Gure inguruan ere herrietan betidanik entzun da trikitixa, eta ni engantxatu egin ninduen. Gurasoei behin eta berriz eskatu eta azkenean 8 urterekin hasi nintzen.

Trikitixa zure bizitzaren hanketako bat dela esan daiteke. Nola bizi duzu trikitixa?
Bai hala da. Horretatik bizi naiz, gustuko dut, horren inguruan lan egiten dut... Zerbaitetan ona izateko uste dut ezinbestekoa dela engantxe puntu bat eta ni trikitixak engantxatuta nauka.

mendizaleen >>>>>>txokoa

Mendi ibilbidea: Pagoeta



Nola heldu: Orio gainean, Zarautz eta Orio batzen dituen errepidean, eskuinalderantz doan errepidea hartuz Aia herrira helduko gara. Bidegurutzetik 2 km. egin eta gero, iragarki batek "Manterola"rako (P) bidea erakusten digu, antzinako burdinola.

Ibilbidea: Gure txangoa Manterola baserrian (P) hasiko dugu. Hemen autoa utzi beharra dago, ezin baita parke barrera sartu.

Erreka eskuinaldean duen bidetik irtengo gara. Laster eskuinaldean Elordiko errota ikusiko dugu.

Bide honetatik jarraituko dugu Agorregi-Bekoa errotarekin topo egin arte, eta atzean Agorregiko burdinolarekin (1). Bisita bat egitea gomendatzen dugu.

Ubide altuenetik aintziraraino helduko gara. Ubide honi jarraituz, ur hartzea ematen den errekara heltzen gara, bera zeharkatuz (2) eta ezkerreko bidetik igoko gara Gorostiola baserriarekin (3) topo egin arte.

Igotzen jarraituko dugu Aia (4) herrira iritsi arte. Pagoeta gailurrera igo aurretik leku egokia dugu hau indarrak berritzeko. Bide nagusiaren eskuinaldera, zementuzko bide bat hartuko dugu (marka horiak jarraituz). Bigarren bidegurutzean eskuinaldera jo beharra dago, zementuzko bidea harrizkoa bihurtzen delarik.

Eskuinaldera doan bihurgune gogor batetan, marka horiak agertuko zaizkigu berriz ere, baita Pagoeta izena erakusten duen iragarkia ere. Baserritarren gurdiek utzitako urratsak ikus ditzakegu bidean zehar.

Pagoeta parkean sartuko gara ate batetik zehar. Argi ikusten den bide batetik joko dugu gorantz, Pagoeta (714 m.) (5) gailurrera iritsi arte. Hemendik kosta ikus dezakegu eta hotza edo euria egiten duen egunetan, aterpe txiki batek babestuko gaitu.

Jaitsiera, arantzaren ezkerraldetik doan xenda paralelo batetan zehar igarotzen da. Beherantz jarraituko dugu tentsio altuko dorre baten albotik (Lizarrako lepoa) (6). Inguruko elurzuloak ikus ditzakegu, batzuk egoera onean. Arantzaren beste aldera igaro beharra dago eskuinaldetik doan bidetik jaisteko errepide bat arte, hau gurutzatu eta aurrealdeko bidea jarraituz Laurgain (7) auzora helduko gara.

Bide honetatik errepidera jaitsiko gara, hemendik ezkerrera joko dugu, eskuinaldean markatuta dagoen bidean sartu arte. Bide honek Iturraran (8) baserrira eramango gaitu. Puntu honetantxe aurkitzen da Parkeko harrera zentroa, lorategi botaniko eta museoarekin.

Iturraranetik, Agorregiko (1) burdinolarantz doan bidea igaroko dugu, azkenik hasiera puntura heltzeko (P).

Datu baliagarriak: Nahiz eta 10 Km-ko ibilbide hau egun erdi batetan egin daitekeen, bertako burdinolak , paisaiak, eta abarretaz gozatzeko parada izateko, egun osoa igarotzea gomendatzen dugu.

Gutunontziak, gurutzeak, eta gainontzekoak

Aspaldiko ohitura dago zabalduta gure herrian, mendi gailurretan gutunontziak, gurutzeak eta mota ezberdinetako oroigarriak jartzekoa. Ez naiz ni horien oso zalea izan, baina erres-petuz hartu izan ditut. Egia da ere, askotan mina ematen duela, halako gurutze tzarrak gure gailur ederrenetarikoan eraikita ikusteak. Eta ez da inongo sentimendurik gurutzearen aurka. Hain xuxen pentsatzen dudana da, gurutzean aspaldi hartan hil zuten hark, nahiago izango zituela mendi gainak garbiak. Behintzat esaten duten bezain tipo jatorra baldin ba zen.

Ohitura zahar honetan izan badago, joera kuriosoa. Postontzia edo gurutze edo kohetea edo etxetxo edo danbolina edo eta abar, -zeren eta mendi gainetan mota ezberdinetako oroigarriak jartzea da ohitura-, zahartu egiten direnean, herdoila ederrez jantzirik daudenean, azken finean denboraren arrastoa agertzen dutenean, edo hobe esanda, haizeak, euriak, elurrak, trumoiak, lainoak, beraien arrastoa oroigarri horietan idatzi dutenean, horrela gertatzerakoan, oroigarri horiek denboraren testigantzan bihurtzen direnean, eta mendi gailur horietan erabat integraturik daudenean, horra hor non eta, oroigarri berria, lau edo hamar aldiz handiagoa sortzen da herdoilez, euriez, haizez, elurrez jantzirik dagoen oroigarri zahar xume horren ondoren. Oroigarri berri traketsa, aluminiozko, itsusiago, oroigarri txiki eta xumeari baztertuz.

Eta gure historiaren mespretxu hori, gehiago kezkatzen nau, mendi gainetan oroigarriak landatzea baino.

Felipe Uriarte

Gai Teknikoa: hidratazioa mendian

Hidratazio ona lortzea dugu mendian arazo nagusitariko bat. Mendi handietan, baita gure mendietan ere, neguan eta noski udaran.

Eta hidratazio txarrak dira hainbat ahulaldien errudunak. Aurreko maiatzaren 18an Aneto mendira talde handi bat gidatu nuen mendiko eskiz; gu bezala beste 200 bat mendizale Anetoko gailurrerantz ari ziren. Beheko aldian euskaldun gazte koadrilatxo bat, gu baino sasoitsuagoak, aurre hartu ziguten. Bide osoan hor ibili ginen, koadrila bat besteari aurrea hartzen, kaixo eta zer moduz, nongoak zarete, eta gero arte eta berriz hemen, eta horrela.

Gailurra egin eta mendi eskiatzaileentzako unerik ederrena: Aigualluts Glaziarra eskiatzea, 1.700 metro desnibelarekin. Elurra astun xamarra, maiatzako egun garbi bateko eguraldiko beroak, gailurra egiteko beharrezko bost pasei ordu golkoan,.., eta behe behean, hantxe, gure lagun berrietako bat jota ur falta zela eta. 2 ordu gehiago behar izan zuten autoraino iristeko.

Mendiko saio baterako hidratazio on bat bezperan hasten da. Hidratazio on bat osatzeko mendizaleak ezin du bere motxilan behar den ura eraman; motxilan 3-4 ur litro sarturik, hau da 3-4 kg. Hobe ura soinean eramatea; soina aurretik ondo hidrataturik izatea. Hau da, aurreko eguna arratsaldean eta gabean, 3 bat litro likidoa edatea. Gosaltzerakoan ere likidoak ondo sartu golkoan: laranja zukua, kafea, txokolatea, edo tea litro erdia. Gosal ostean eta abiatu baino lehen, ni neuk ohitura dut ur trago handi bat botatzea; beste litro erdi bat edo.

Azkenik kontutan hartu egarri kolpeak ez pairatzeko, oso ona dela erritmo aldaketarik ez egitea. Hasieratik ibilera majo bat hartzea eta hori mantentzea.

Edozein mendizalea gai izan beharko litzateke ur litro batekin 6 bat ordu ibiltzeko, ordu horietan ondo banaturik, bi baldintza hauek aurretik bete ezkero: Hidratazioa esan bezala osatuz. Erritmo lasaia eta iraunkorra mantenduz.

Felipe Uriarte

MENDIAK ETA HERRIAK
mendi gidari elkartea
eskalada-mendi eskia-goimendia-trekking-espedizioak
mendiak eta herriak
Tel./Fax: 948 513 233
e-posta: info@mendiaketaherriak.com
web orria: www.mendiaketaherriak.com
Pastandegia etxea, 31891 Gaintza, Nafarroa.
DAMAVAND 5.671 M ESPEDIZIOA (IRAN)
Uztailaren 5etik 20ra
Xavier ERROren gidaritzapean
- 4 egun altuerara egokitzeko Alankut Mendietan
- 5 egun Damavand sumendia igotzeko
- 4 egun Shiraz, Persepolis eta Isfahan bisitatzeko

zuk zeuk!

LIBURUA
'NORBAIT DABIL SUTE ESKAILERAN'
Harkaitz Cano, Susa.



Norbait dabil sute eskaileran. Hotel hartako gela ziztrinean geratu behar izan du Harkaitzek zelatari halabeharrezko, eta ikerketa hartatik abiatuta zikinduko ditu orriok beltzez. Eskailerak sortutako zarata eta zaratatxo, zurrunbilo eta susmoak idatziko ditu ondorenean, beti ere zarata horien sorlekua ikertuz, hautatuz, hausnartuz edo amestuz. Edo oro batera.

Hildo hartatik, irudi bikainez ehunduriko maindire fin eta harrigarria suertatzen hasiko da Canoren esku dardartitik, zarata horiei aurpegia jartzen hasiko zaio, historio bat, bizitza bat, ala heriotza bera narratzeko.

Narratiboak dira oso Harkaitzen olerki hauek, iradokitzaileak arras, irakurlearen irudimena dantza eroan jarriz. Eta barka hemen egiten dudan sasi literatura, bina zaila izango litzaidakeen honi buruz hitz hotzez egin ahal izatea.

Irudia, metafora baldin bada poesiaren muina, Harkaitz poeta da, eta sortutako irudi horiek, gainera, gure irudimena zirikatzeko balio baldin badute, poesia ona da. Onona.▮

IKUSKIZUNA
CIRQUE DU SOLEIL:
ZIRKOA ARTE BIHURTZEN DENEAN.

1984an 73 langileek osatzen zuten taldea; gaur egun, munduko toki ezberdinetako bi mila pertsona baino gehiagok lan egiten dute zirkoarentzat. Urtetik urtera ikusleen kopurua izugarri handitzen da; 1989an 270.000 ikusle, 2001.ean 6 milioi. 40 herri ezberdin eta 25 hizkuntza ezberdin elkartzen dituzte. Québec-eko kaleetan hasi zena, ospe handiko enpresa batean bihurtu da.

Azken lana, Saltimbanco, italieraz kaleko artista, kalean, urbean, inspiratua dagoen lana da. Zuzendaritza, koreografia, makillajea, jantziak, musika, argiak...dena eztabaidatua eta elkartua izan ondoren, hamar numero ezberdinen emaitza da Saltimbanco. Maila altuko akrobazia perfektua edertasunez jantzia. Kolore ugari eta biziko jantzi eta maskarekin, musika biziz, Saltimbanco-ko artistek, ikuslea, bidai liluragarri batean sartzea lortzen dute.

Bizitzaren ospakizuna da, XX mendeak ezaugarri gisa duen kaosa eta biolentziaren aurkako antidotoa. Cirque du Soleil-ek urbearen ikuspegi berri bat azaldu nahi du fantasiaren hizkuntzarekin, baikortasun eta zoriontsuagoa den urbea.▮

ZINEA
'LA VIDA MANCHA'
Zuz: Enrique Urbizu. Aktoreak: José Coronado, Zay Nuba, Juan Sanz, Yohana Cobo. Espainia, 2002.

"La caja 507" thriller apartaren ostean, drama intimista fin batean murgiltzen gaitu Enrique Urbizu interesgarriak. Pokerra Fito kamiolari ludopataren zoriona pitzatzen ari da apurka-apurka. Zorrak kitatu ezinik dabil, eta emaztearen maitasuna ere urtuz doakio. Itxaropen ezean itotzear dela, anaia zaharra etorriko zaio bisitan. Hitz gutxiko morroi misteriotsu eta ilun horrek patua aldatuko dio supitoki. Auzune txiro batean girotua dagoen arren, "western" krepuskular hilezkorrenen zantzuz zipriztinduta dago filma. Bertan, heroi hits eta alderrai baten rola jokatzen du José Coronadok. Zoriona eman baina jaso ezin duen "cowboy" bakartiarena, alegia. Azken dueluan garaile irten arren, maitasun ezaren balak zulaturiko bihotza maletan sartu eta oroitzapenen bidezidor saminetan galduko dena. Isiltasun iradokitzailez, sentimenduz iltzatutako begiradez, eta amets apurtuz josítako ezinezko maitasun baten istorioa da. Malenkoniaz tindatutako drama idor, baina hunkibera.▮

LANDER GARRO

NAIARA MAYO

IÑAKI LAZKANO

DON BOSCO



DB ikasLAN Gipuzkoa

HSAOL BATXILERGOAK	ERDI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK	GOI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK
• Batxilergo Teknologikoa (A eta D ereduak)	• Soldadura eta Galdaragintza (A eta D ereduak) • Ibilgailuen Elektromekanika (A eta D ereduak) • Administrazio Kudeaketa (A eta D ereduak) • Karrozeria • Hotz klimatizazio eta bero ekoizpen instalazioen muntaia eta mantenimendua	• Administrazioa eta Finantzak (A eta D ereduak) • Ingurugiroko Kimika (A eta D ereduak) • Ekipo Industrialen mantenimendua • Analisi eta Kontrola • Automozioa • Produktu Elektronikoen garapena • Metal eraikuntzak • Prozesu eta eraikin instalazioetako muntaia eta mantenimendua

LANGAIrekin lan egiten duen Zentroa - LAN SAILAren Zentro Tutelatua - LANERAKO FORMAKUNTZAren Emailea - JARRAIEKO FORMAKUNTZAren Emailea (HOBETUZ) - AUTODESKeko A.T.C. (Training Center) - LAN POLTSA: lanean %85 baino gehiago

San Markoserako errepidea, z/g - Posta-kutxa: 101 - 20100 ERRENTERIA
Tfnoa 943-51.04.50 / 4 / 8 Faxa. 943-52.92.20 - E-mail: donbosco@fpdonbosco.com / www.fpdonbosco.com

Iraganari begirada

TABAK

Tabetan neskek jolasten zuten batik bat, eta mutilak aritzen zirela esaten badute ere, ez omen zen batere arrunta mutilak jolasten ikustea.

Gehienetan arkumeen belauneko hezurra erabiltzen zen taba bezala, alabaina, ahuntzena preziatuagoa omen zen, itxura denez gogorragoak ziren ahuntzen hezurrak. Tabak San Jose egunaren inguruan eskuratzen ziren, egun honetan ohitura baitzen arkumea jatea. Baina haur guztiek izan bazituzten ere, ale bakar gutxi batzuk izaten zituzten soilik.

Garaia iristean, haurrak taben atzetik ibiltzen ziren herriko harakin eta etxekoei esanez *tabak jaso eh, tabak jaso!*.

Neskek txukun-txukun apaintzen zituzten tabak. Horretarako, azkazalak margotzeko kolore biziko esmaltea erabili ohi zuten. Batzuk amaren laguntzaz tindatzen zituzten. Normalean tabak telazko poltsa batean gordetzen ziren.

Tabaren alde bakoitzari izen bat jartzen zitzaion: *nadas* edo *tabas, pones, tentes* eta *carnes*.

Haurrek banan-banan jolasten zuten. Bestalde esan behar da, tabak ez zirela jokoan galtzen, hau da, jolasean galdu arren tabak ez ziren galtzearen ordain gisa erabiltzen. BORDAUNDI